



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko uztailaren 2a

76. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, bizitzaren amaieran pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzkoa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuako Transferentzia Batzordea premiatzen da zenbait eskumen eskualdatzeko eta bereganatzeko negoziazioak susta ditzan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (14. or.).

—Gasturako erreserbak ukitutako kontusailei buruzko erabakia. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Nafarroako Gobernuaren 2010erako Gastu eta Erreserba Planak Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren zer kontusail ukituko dituen jakiteko, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (16. or.).

—Galdera, Nafarroako Museoa handitze aldera Iruñeko Udalarekin sinatu beharreko protokoloari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (16. or.).

—Galdera, Arte Garaikidea Sustatzeko Plana Nafarroako Museoa handitzeko protokoloari dagokionez garatzeari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (17. or.).

—Galdera, Nafarroako Zirkuituaren inaugurazioak eragindako gastuei eta horiek ordaintzeko baliatuko den kontusailari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (18. or.).

—Galdera, Sasi Ardi eta Pottoka arrazak Nafarroako arraza autoktonoen barruan sartzeari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (19. or.).

—Galdera, Erronkariko herrigunean Ezka ibaian ur bizien ubidea egiteko proiektuari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (19. or.).

- Galdera, Nafarroan ekintzaileen proiektuei babes emateko politikari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (20. or.).
- Galdera, Los Arcosko zirkuituko aparkalekuko zoladurari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (20. or.).
- Galdera, garapenerako lankidetzaren arloko laguntza teknikoari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (21. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren Erabakia, 2010eko otsailaren 8koa, izaera pertsonaleko datuen fitxategiak sortzeari buruzkoa. Fitxategiak osatzea (22. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, bizitzaren amaieran pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 21ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak bizitzaren amaieran pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Bizitzaren amaieran pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2010eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, bizitzaren amaieran pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Azken hamarkadetan, izugarriko aldaketak izan dira gizartean, eta, hori dela-eta, bizi itxaropena handitzeaz gain, populazioa zahartu egin da. Horrek gaixotasun kronikoak eta itzulezinak areagotzea ekarri du, eta, medikuntzan nahiz hari lotutako beste zientzia batzuetan izandako aurrerabideen ondorioz, galdera eta erronka berriak sortzen dira bizitzaren amaierako prozesuen inguruan, bizi-funtzioak orain arte pentsaezinak ziren mugetaraino luzatzea ahalbidetzen baitute.

Osasun-laguntza erabat teknifikatuko testuinguru honetan, gero eta prozesu gehiagoren ezau-garri dira bizi-pronostiko laburra, gaixotasunaren sendaezintasuna, sufrimendu pertsonal, fisiko edo moral eta familiar handia; halatan, gizarte demokratiko batean, pertsonaren askatasuna, erlijio-sinesmenak eta borondatearen autonomia errespetatu beharra dago gaixotasunak dirauen bitartean eta, bete-betean, heriotzaren prozesuan.

Hortik heldu da duintasunez hiltzeko nahia ziurtatuko duten bermeak eta askatasunak legez arautzeko beharra, horrek berekin dakarren guztiarekin. Sufrimendu fisiko, psikiko edo espiritual txikiarekin hiltzea. Maite diren pertsonen ondoan hiltzea. Ongi informatuta hiltzea, hala nahi baldin bada, eta ez esperantza irreal baten gezur errukior faltsu batean. Jaso nahi ez diren tratamenduei uko egin ahal izanez hiltzea. Bizi-testamentu batean alde zuzenetik adierazitako barru-barruko desiren arabera hiltzea. Intimitate pertsonal eta familiarrean hiltzea. Alegia, baliagarriak ez diren eta amaiera alferrik luzatu besterik egiten ez duten tratamenduak –asmo oneko profesionalek, sendatzen ez duten terapietan tematuek, emanak– jaso gabe hiltzea.

Ongi zainduta hiltzea, garaiz hiltzea, nahi izanez gero lo hiltzea. Bakean hiltzea. “Era naturalean” hiltzea, luzamendu artifizialik gabe, garaia hel-tzen denean.

Ordenamendu juridikoak heriotza duinaren ideala zehaztu eta babestu behar du. Giza eskubideak eta gizakien duintasuna biologiaren eta medikuntzaren aplikazioetatik babesteari buruzko Europako Kontseiluaren Itunak –Giza eskubideei eta biomedikuntzari buruzko Ituna, 1997ko apirilaren 4an Oviedon sinatua– 5. artikuluan ezartzen duenez, osasun arloko esku-hartze bat egin ahal izateko, ezinbestekoa izanen da ukitutakoak alde zuzenetik baimena libreki eta zalantzarik gabe ematea. Unescoren Konferentzia Nagusiak 2005eko urriaren 19an Bioetikari eta Giza Eskubideei buruz onetsitako adierazpen unibertsaleko 5. artikulua

ezartzen duenez, berriz, pertsonaren autonomia errespetatuko da, erabakiak hartzeko ahalmenari dagokionez.

Heriotza duinaren idealari buruz adostasuna duen funtsezko beste edukietako bat da gaixoen eskubidea dutela kalitatezko zainketa aringarri integralak jasotzeko. Hala ezarri zuen Europako Kontseiluaren Parlamentu-biltzarraren 1418/1999 Gomendioak, "Gaixo terminalen eta hil-hurren daudenen giza eskubideen eta duintasunaren babesari buruzkoak". Organo horren beraren Zainketa aringarriak antolatzeari buruzko 24/2003 Gomendioak, berriz, zainketa aringarriari buruzko esparru koherente bat ezartzeko lege-neurriak hartzeko gomendatzen du. Helburua da jada ezarrita dagoen ideia oinarrizko eskubidearen mailara eramatea.

Aitzitik, ez dago adostasun ez etikorik ez juridikorik sufritzen duen gaixoak bizitza amaiazte aldera hirugarren pertsonen laguntza eskatzeari dagokionez. Egoera hori "eutanasia" terminoarekin dago lotuta. Etimologiari erreparatuta, "heriotza ona" esan nahi du, baina gaur-gaurkoz delitu gisa dago tipifikatuta Zigor Kodean.

Foru lege honek tratamenduari uko egitea, biziari eusteko neurriak mugatzea eta sedazio aringarria arautzen ditu. Horiek, ordea, ez dira eutanasia-ekintza gisa kalifikatu behar, ez dutelako heriotza berariaz bilatzen, ezpada sufrimendua arintzea edo ekiditea, gaixoaren autonomia errespetatzea eta biziaren amaierako prozesua leuntzea.

Funtsezko beste eduki bat da Aurretiazko Borondateen Agiria edo Bizi-testamentua egiteko eskubidea, zeinetan jasota utziko baita zer tratamendu jaso nahi den baldin eta nork bere erabakiak hartzeko modurik ez badu.

Hori izanen litzateke pertsonaren borondatearen autonomia printzipioaren ikuspuntutik erabakitzeko bi tresnetarik bat, legez araututa. Bestea informazio klinikoari, baimen informatuari eta erabakiak hartzeari buruzko eskubidea da. Aurretiazko Borondateen Agiria, izatez, horren zuzenketa bat baizik ez da.

Aurretiazko Borondateen Agiria betetzerakoan herritarren irisgarritasuna areagotzea eta osasun arloko profesionalena hobetzea aurreikusten da.

Bizi-testamentuak ordezkari bat izendatzera mugatu ohi dira, inolako jarraibiderik edo egoera klinikorik ezarri gabe; hori dela eta, foru lege honen bidez bizi-testamentuen egitekoa osatu nahi izan da, bai eta ordezkari horrek, unea iritsiz gero, kontuan izan ahal dituen interpretazio-irizpi-

deak ere, halako moduz non beti jardunen duen ordezkariak pertsonaren onurarik handiena bilatu nahian eta haren duintasun pertsonalarekiko errespeturik handienarekin.

Bizitzaren amaierako prozesuko duintasun osoa egiaz ziurtatze aldera, foru lege honek, ataka horretan pertsonari dagozkien eskubideak ezarri eta garatzeaz gain, pertsonak heriotzaren prozesuan artatzen dituzten osasun arloko langileen betebeharrak ezartzen ditu, eta zenbait betebeharrak ezartzen dizkie erakunde publiko nahiz pribatuei, pertsonen eskubideak ziurtatzea helburu; hartara, historia klinikoan jasota ageriko dira prozesu terminalari buruzko informazioa eta gaixoaren lehentasunak erabakiak hartzerakoan.

Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 48. eta 53. artikuluek arautzen dute Nafarroako Foru Komunitatearen arlo horretako legegintza-ekimena.

Halatan, osasunaren babeserako eskubidea 1978ko Konstituzioko 43. artikuluan dago jasota. Konstituzio-eskubide hori, berriz, Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorrak garatu zuen.

Estatuko legedian ez ezik, osasunari buruzko foru legeetan ere jasota daude foru lege honek arautu nahi dituen osasun arloko eskubideak. Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 5. artikuluan jasota daude herritarren nor-tasun, giza duintasun eta barnekotasuna begiratuaz izateko eskubidea, inongo diskriminaziorik gabe.

Foru lege honek bizitzaren azken prozesuan dauden pertsonen eskubideak arautu eta garatu nahi ditu, maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legearen espirituan eta araudian sakonduta, bereziki horren 9. artikuluari dagokionez.

Lege hau onetsita, Nafarroak Andaluziako Autonomia Erkidegoak irekitako bideari ekiten dio, pertsonen heriotzaren prozesuan munta berezikoak diren eskubideak eta horrek berekin dakartzan egoera klinikoak eta existentzialak ere arautzen baititu.

Horri buruzko legedia ugariak erakusten du giza duintasunaren babesa puntu erabakigarria dela, eta foru lege honek bide hori osatu nahi du, une ez-baldintzatutik eduki zehatzetara, hain zuzen ere pertsonarentzat eskatzen dugun babesa uneoro ziurtatzen dutenetara, doan iragaitea onartuz.

Badago oinarrizko adostasun etiko eta juridikoa heriotza onaren idealaren eduki eta eskubideetako batzuen gainean: zainketa aringarri integralak eta kalitatezkoak jasotzeko eskubidea, biziari eusteko

neurriak ez hastekoa edo kentzekoa baldin eta bizitza biologiko hutsari artifizialki eusteko baizik ez badute balio, eta pertsonaren autonomia errespetatzekoa bizitzaren amaierako prozesuan. Foru lege honek, hartara, eskubide horiek ziurtatzeko oinarrizko tresnak zehaztu nahi ditu, eta, horretarako baliatzen ditu informazio klinikoa, baimen informatua, erabaki-hartzea (pertsona gai denean) eta Aurretiazko Borondateen Agiria (pertsona gai ez denean). Lege honetako artikuluek hori guztia jorratzen dute.

Horrenbestez, foru lege honek harreman klinikoaren erdigunean jartzen du pertsona, pertsona baita eskubideen titularra eta bere prozesua gidatu behar duena, laguntza-langileekin batera hausnartuta. Profesionalek ezin dute informazioa baliatu eta ez dute informazioa baliatu behar pertsona alde batera utzita, ez eta hura kontuan hartu gabe erabakiak hartu ere.

Ondoko artikuluen bidez orobat jaso nahi dira profesionalen eginbeharrak eskubide horiek baliagarri bihurtze aldera, besteak beste informazioa eta dokumentazio klinikoa emateko beharra eta nork bere borondatez libreki hartutako erabakiekin errespetua.

Hori guztia, finean, pertsonen erabaki-autodeterminaziorako eta informazio-autodeterminaziorako eskubideak ezartzeko harreman klinikoaren esparruan.

I. TITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da arautzea pertsonak bizitzaren amaierako prozesuan dituen eskubideak, gaixo horiek artatzen dituzten osasun arloko langileen betebeharrak eta prozesu horri dagokionez gizarte- eta osasun-erakundeek eman beharreko bermeak.

2. artikulua. Helburuak.

Hona foru lege honen helburuak:

a) Pertsonaren duintasuna zaintzea bizitzaren amaierako prozesuan.

b) Pertsonaren autonomia eta haren borondatearekiko errespetua ziurtatzea bizitzaren amaierako prozesuan, Aurretiazko Borondateen Agirian alde aurretik adierazitakoarekiko barne.

c) Arautzea pertsonak bizitzaren amaierako prozesuan dituen eskubideak, gaixo horiek artatzen dituzten osasun arloko langileen betebeharrak eta prozesu horri dagokionez gizarte- eta osasun-erakundeek eman beharreko bermeak.

3. artikulua. Norainokoa eta aplikazio eremua.

Foru lege hau Nafarroako Foru Komunitatean aplikatuko zaie bizitzaren amaierako prozesuan dauden pertsona guztiei edo prozesu horrekin lotutako erabakiak hartzen dituztenei, bai eta horien gizarte nahiz osasun arloko laguntzan inplikaturako langileei eta Foru Komunitatean zerbitzu ematen duten zentro publiko nahiz pribatuei ere.

4. artikulua. Oinarrizko printzipioak.

Hona foru lege honen oinarrizko printzipioak:

a) Bizitzaren amaierako prozesuan pertsonaren duintasun osoarekiko errespetua ziurtatzea.

b) Pertsonaren askatasunaren, autonomiaren eta borondatearen sustapena, haren desirekin, lehentasunekin edo balioekin bat, bai eta haren intimitatea eta konfidentzialtasuna gordetzea ere.

c) Tratamendu bat pertsonaren borondatez ukatzeak edo eteteak gizarte nahiz osasun arloko laguntza integrala eta bizitzaren amaierako prozesuan pertsonak duintasun osoa izateko duen eskubidea kaltetuko ez diren bermea.

d) Pertsona guztiek zainketa aringarri integralak eta bizitzaren amaierako prozesuan minaren eta bestelako sintoma batzuei aurre egiteko tratamendu egokia jasotzeko eskubidearen bermea.

e) Egiazko berdintasuna eta diskriminazio eza bizitzaren amaierako prozesuan gizarte nahiz osasun arloko zerbitzuak jasotzerakoan.

5. artikulua. Definizioak.

Foru lege honen ondorioetarako, horrela ulertuko dira hurrengoak:

a) Bizi kalitatea da bizi-baldintza objektiboekiko norbanakoaren gogobetetasuna, norberaren balioak eta sinesmenak oinarri.

b) Baimen informatua da, Gaixoaren autonomia eta informazio nahiz agiri klinikoaren alorreko eskubide eta betebeharrak arautzen dituen azaroren 14ko 41/2002 Legeko 3. artikuluan ezarritakoarekin bat, "gaixo baten adostasun libre, borondatezko eta kontzientea, informazio egokia jaso ondotik bere ahalmenak osotara baliatuta adierazia, bere osasunari eragiten dion jarduketara bat egin dadin".

c) Zainketa aringarriak: osasun arloko eskuhartzeen multzo koordinatua, gaixoen eta haien ahaideen bizi kalitatea hobetzera zuzendua, ikuspuntu integral batetik. Horien bidez, gaixotasun edo egoera sendaezin eta itzulezin baten ondoriozko arazoei aurre egiten zaie, prebentzioaren eta oinazearen arintzearen bidez, bai eta minaren eta

beste sintoma fisiko, psikosozial eta espiritual batzuen identifikazio, balorazio eta tratamendua-
ren bidez ere.

d) Aurretiazko borondateen adierazpen-agiria: Biziaren gaineko aurretiazko borondateak egiteko eta informazioa eta agiri klinikoak eskuratzeko eskubideei buruzko maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legearen 9. artikuluan ezartzen denez, sendagile arduradunari zuzendutako agiri bat da, non pertsona adindun batek edo foru lege honi jarraituz gaitasuna aitortzen zaion adingabeko batek bere aurretiazko nahiak adierazten baititu, balizko jarduketa medikoei buruz, zenbait baldintzaren ondorioz pertsonalki haiek adierazi ezin dituen egoeran kontuan hartu beharrekoak; adierazpen hori baimen informatuaren bitartez eginen da, eta sendagile arduradunak eta egoera horretan hari laguntza ematen dion talde medikoak kontuan hartu beharrekoa izanen da.

e) Osasunaren alorreko esku-hartzea: azaroaren 14ko 41/2002 Legearen 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, helburu prebentibo, diagnostiko, terapeutiko, errehabilitaziozko edo ikerketazkoekin eginiko jarduera oro da.

f) Ahalegin terapeutikoa mugatzea: biziari eusteko neurri bat kentzea edo ez hartzea, gaixoa tratatzen ari diren osasun arloko profesionalek uste dutelako haren pronostiko txarraren ondorioz, etorkizuneko bizi kantitateari eta kalitateari dagokionez, erabat hutsala dela, eta soilik balio duela hobetzeko arrazoizko aukerarik ez duen egoera biologikoa denbora luzatzeko.

g) Biziari eusteko neurria: pertsonaren bizi-konstanteak mantentzera bideraturiko osasun arloko esku-hartzea, hidratatze eta elikatze artifizialak barne, kontuan hartu gabe esku-hartze horrek eragin terapeutikoa duen edo ez pertsonaren bizitza arriskuan jartzen duen oinarritzko gaixotasun edo prozesu biologikoarengan.

h) Hidratatze eta elikatze artifiziala: esku-hartze medikoa, gaixoari elikagaiak eta ura emateko zunda bidez, zainetatik edota beste metodoen bat erabiliz. Ez da hor sartzen katilu, esku, botila, hurrupa eta mahai-tresnen bidezko hidratatzea eta elikatzea.

i) Mediku arduraduna: azaroaren 14ko 41/2002 Foru Legearen 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, mediku arduraduna da "gaixoari edo erabiltzaileari buruzko informazioa eta haren osasun arloko laguntza koordinatzeko ardura duen profesionala. Bera izanen da solaskide nagusia gaixoaren arretari eta informazioari dagokionez laguntza-prozesu osoan, ezertan galarazi gabe laguntza-jardueretan

parte hartzen duten beste profesional batzuen betebeharrak."

j) Setatze terapeutikoa: bizitzaren amaieran dagoen pertsona bati erabilgarritasun klinikorik ez duten neurriak aplikatzen hasia edo jarraitzea. Neurri horiek gaixoaren bizi kalitatea okertu dezakete, eta haren bizitza biologikoa luzatzeko besterik ez dute balio, hobera egiteko edo sendatzeko aukera errealik gabe. Hori dela eta, neurri horiek mugatu egin daitezke.

k) Bizitzaren amaieran dauden pertsonak: gaixotasun edo egoera sendaezina eta itzulezina duten pertsonak, edota egoera terminalean edo hilzorian daudenak.

l) Ordezkarria: pertsona adinduna eta gaitasuna duena, eta beste baten ordezkarri gisa baimena ematen duena, horretarako izendatua izan ondoren aurretiazko borondateen adierazpen baten bidez, edo, halakorik izan ezean, arlo horretan indarrean dauden legezko xedapenei jarraikiz.

m) Sintoma immunea: tratamendu egokiari erantzuten ez diona eta, kontrolatu ahal izateko, gaixoaren konortea murriztea eskatzen duena.

n) Hilzorian egotea: heriotzaren aurreko fase graduala, ondoko adierazpen klinikoak dituen: hondatze fisiko larria, erabateko ahuldadea, kognitio- eta konorte arazoak, harremanak izateko eta jateko zailtasunak eta, azkenik, egun batzuetako bizi-itxaropena.

ñ) Izatezko ezgaitasun egoera: pertsonak, de facto, beren bizitza modu autonomoan gobernatzeko behar adina entendimendu eta borondatea falta duten egoera.

o) Egoera terminala: Gaixotasun aurreratu, sendaezin eta itzulezin bat edukitzea, berriazko tratamenduari erantzuteko arrazoizko aukerarik gabe, bizi-pronostiko mugatuarekin eta sintoma bizi eta aldakorrekin; eta gaixotasun horrek eragin emozional handia izatea gaixoengan eta ahaideengan, eta, azkenean, eragin horren ondorioz, osasun arloko profesionalek askotan berriaz esku hartu behar izatea.

p) Sedazioa hilzorian: sedazio aringarria, hilzorian dagoen gaixo baten sufrimendu fisiko, psikologiko edo espiritual bizia arintzeko behar den graduan, aurretiazko baimenarekin, hain zuzen ere foru lege honetako 8. artikuluan ezarritako moduan, maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legean ezarritakoa ezertan kendu gabe.

q) Sedazio aringarria: botikak ematea, behar diren dosi eta konbinazioen arabera, gaixo baten kontzientzia gutxitzeko bizitzaren amaierako pro-

zesuan, sintoma immune bat edo gehiago egoki arintze aldera, aurretiaz baimena eman ondoren, maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legean ezarritako moduan.

r) Bizi-testamentua: aurretiazko borondateen adierazpenaren sinonimo bat da.

s) Bizi-balioak: pertsona baten balioen eta sinesmenen multzoa, haren bizi-proiektuari zentzua ematen diotenak eta gaixotasun eta heriotza prozesuetako erabakiak eta lehentasunak oinarritzen dituztenak.

II. TITULUA

Pertsonen eskubideak bizitzaren amaierako prozesuan

6. artikulua. Informazio klinikorako eskubidea

1. Bizitzaren amaierako prozesuan dauden pertsonen edo prozesu horrekin lotutako erabakiak hartu beharrean daudenek eskubidea dute beren beharren eta errekerimenduen arabera egiazko informazio kliniko ulergarri eta egokia jasotzeko, erabakiak modu autonomoan hartzen laguntzeko. Informazioa ahozkoa izanen da, oro har, eta historia klinikoan jasoko da.

2. Pertsonaren ardura duen sendagileari dago- kio informaziorako eskubidea bete dadin bermatzea eta pertsona horrekiko komunikazio egokia bermatzea. Gaixoari laguntzen dioten edo teknika nahiz prozedura zehatz bat aplikatzen dioten sorospen-profesionalek ere erantzukizuna hartu behar dute informazio-prozesuan.

3. Pertsonari laguntza ematen inplikaturiko osasun arloko profesionalak informazio kliniko berariaz eskaini eta pertsona horrek informazioa bere borondatez eta libreki errefusatzeko baldin badu, erabaki hori errespetatu eginen da. Kasu horietan galdetuko zaio informazio hori zeini ematea nahi duen. Prozesu osoa historia klinikoan jasoko da.

4. Informazio klinikorako eskubidearen titularra bizitzaren amaierako prozesuan dagoen pertsona da. Informazioa eman ahalko zaie, halaber, harekin arrazoi familiarrengatik edo izatezko arrazoiengatik lotutako pertsonari, gaixoak horretarako baimena ematen badu, betiere 10. artikuluan ezarritakoa ezertan ere kendu gabe.

7. artikulua. Erabakiak hartzeko eta informazioan oinarrituriko baimena.

1. Bizitzaren amaierako prozesuan dagoen edo prozesu horrekin lotutako erabakiak hartu behar dituen pertsona orok eskubidea du harengan eragina duten esku-hartzei buruz erabakiak hartze-

ko, 9. artikuluan ezarritakoa kendu gabe. Sendagile arduradunak zainduko du erabakiak gaixoarekiko komunikazio eta elkarrizketa prozesu baten ondoren hartzen direla, informazioan oinarrituriko baimenaren doktrinarekin bat.

2. Arlo horretan egiten den esku-hartze orok kasuko pertsonaren aurretiazko baimen libre eta borondatezkoa eskatzen du, behin 6. artikuluan aurreikusitako informazioa jaso eta baloratu ondoren eta sendagile arduradunarekin behar bezala komunikatu ondoren. Baimena ahozkoa izanen da, oro har, eta nolahi ere historia klinikoan jasoko da. Idatziz eskatuko da erregelamendu bidez ezarritzen den kasuetan.

8. artikulua. Esku-hartze bat errefusatzeko eta erretiratzeko eskubidea.

1. Pertsona orok eskubidea du proposaturiko esku-hartzea errefusatzeko, nahiz eta horrek bere bizitza arriskuan jarri. Sendagile arduradunak zainduko du erabaki hori libreka, informazioan oinarritua, borondatezkoa eta kontzientea dela, eta ez dagoela behar ez diren presioei lotuta. Errefusatzeko hori idatziz jaso beharko da. Sinatzerik ez badu, haren orde, aurrez eskatuta, lekuko batek sinatuko du; historia klinikoan, berriz, lekuko horren identifikazioa eta egileak ezin sinatzeko daukan arrazoiak jaso beharko dira.

2. Halaber, pertsonen eskubidea dute esku-hartze zehatz baten aurretik emandako baimen informatua atzera botatzeko; horrek berekin ekarriko du, nahitaez, esku-hartze hori bertan behera uztea, nahiz eta horrek gaixoaren bizitza arriskuan jarri. Informazioan oinarrituriko baimena atzera botatzen bada, idatziz jaso beharko da.

9. artikulua. Aurretiazko Borondateen Adierazpena egiteko eskubidea.

1. Pertsona orok eskubidea du Aurretiazko Borondateen Adierazpen bat egiteko, maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legean eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarritako baldintzetan.

2. Behin Aurretiazko Borondateen Adierazpena egin ondoren, hori historia klinikoan –ospitalekoan nahiz pertsonaren oinarrituriko osasun laguntzakoan– jasoko da, erregelamendu bidez ezartzen den moduan.

3. Halaber, Nafarroako Aurretiazko Borondateen Erregistroan jasotako Aurretiazko Borondateen Adierazpena aurretiazko jarraibideen erregistro nazionalan sartuko da, 1214/2007 Errege Dekretuan ezarritako moduan.

10. artikulua. Aurretiazko Borondateen Adierazpenean izendatutako ordezkaria.

1. Aurretiazko Borondateen Adierazpenean ordezkari bat izendatzen denean, ordezkari horrek beti jardunen du ordezkatzeko duen pertsonaren-tzat onurarik eta errespeturik handiena bilatzeko moduan. Nolanahi ere, zainduko du adierazpenean jasotako egoera klinikoetan, ordezkatuak ezarritako jarraibideak betetzen direla.

2. Agirian berariaz jaso gabeko egoera klinikoetarako buruzko erabakietan, ordezkariak kontuan hartuko ditu bai adierazpenean jasotako bizi-balioak edo -aukerak, bai ustez kasuko pertsonak izanen zuzen borondatea, baldin eta une horretan gaitasuna izan bazuen.

3. Interesdunak ordezkariaren eginkizunak mugatu edo zabaldu ahalko ditu, eta ordezkariak haiek bete egin beharko ditu.

11. artikulua. Ezgaitasun egoeretan dauden pertsonen informaziorako, erabakiak hartzeko eta informazioan oinarrituriko baimenerako duten eskubidea.

1. Aurreko 6. eta 7. artikuluen esparruan, laguntza emateaz arduratzen den sendagilearen iritziz pertsona bat, izatez, ezgaitasun egoera batean dagoenean, bai informazioa jasotzea bai informazioan oinarrituriko baimena ematea honako pertsona hauen bitartez gauzatuko dira, hemen ezarritzen den hurrenkeran: aurretiazko borondateen adierazpen-agirian xede horretarako izendatutako pertsona, ezkontideak edo hari afektibotasun-harreman batez loturiko pertsona, maila hurbileneko ahaideek eta gradu beraren barrinean zaharrena edo, azken kasuan, agintari judizialek erabakitzen dutena.

2. Judizialki ezgaitutako pertsonen kasuan, ezgaitzeari buruzko epaian ezarritakoari begiratu-ko zaio, salbu eta hartan berariazko inongo de-berku edo mugarik ez dagoenean informazioa jasotzeari buruz edo informazioan oinarrituriko baimena emateari buruz; izan ere, egoera horretan, sendagile arduradunak baloratuko du izatez pertsona horiek zer gaitasun duten, 20. artikuluan ezarritako moduan.

3. Ezgaitasun egoera ez da oztopoa izanen artatutako pertsonen informazioa emateko edo erabakiak hartzeko prozesuan parte har dezaten, daukaten bereizmen graduaren arabera egokia den moduan.

4. Ezgaitasun egoeran dauden pertsonen beren eskubideez baliatu ahal izateko, beti haien onurarik handiena eta haien duintasunarekiko errespetua bilatuko dira. Gaixoaren borondatea

interpretatzeko kontuan hartuko dira bai haren nahiak, aurretiaz adierazitakoak, bai orain gaitasun egoeran egonen balitz ustez adieraziko lituzkeenak ere.

12. artikulua. Adingabeen eskubideak.

1. Adingabeen kasuan, baimena haien ordezkariak eman beharko du, betiere haien iritzia entzun ondoren, hamabi urte baino gehiago badituzte, maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legeko 8. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Adingabe emantzipatuek edo hamasei urte bete dituztenek beren kabuz emanen dute baimena, baina, kasua denean, haien gurasoei edo legezko ordezkariari informazioa emanen zaie eta haien iritzia kontuan hartuko da amaieran erabaki bat hartzeko. Gatazkarik izanez gero, adingabearen iritzia emanen zaio lehentasuna, azaroaren 14ko 41/2002 Legeko 9.3.c) artikuluan ezarritakoari jarraituz. Halaber, adingabe emantzipatuek edo hamasei urte beterik dituztenek eskubidea izanen dute informazioan oinarrituriko baimena ezeztatze-ko eta osasun arloko profesionalek proposaturiko esku-hartzea errefusatzeko, foru lege honetako 8. artikuluan aurreikusitako moduan.

13. artikulua. Pertsonen zainketa aringarri integralak jasotzeko eta haiek hartzeko helbidea hautatzeko daukaten eskubidea.

1. Bizitzaren amaierako prozesuan dauden pertsona guztiek, bai eta haiek maite dituzten pertsonen ere, eskubidea dute kalitatezko zainketa aringarri integralak jasotzeko. Zainketek hil ondoren ere iraunen dute, dolu-prozesuan.

2. Kontraindikaturak ez dagoenean, bizitzaren amaierako prozesuan dauden pertsonen eskubidea dute behar dituzten zainketa aringarriak eman diezazkieten Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean izendatzen duten helbidean, beren premia kliniko eta sozialetarako eta helbidearen ezaugarrietarako egokiak diren baldintzetan.

14. artikulua. Pertsonen sufrimendua (mina eta bestelako sintomak) arintzeko duten eskubidea.

1. Pertsonen eskubidea dute laguntza egokia hartzeko, min fisikoari aurrea hartzeko eta hura arintzeko, horren barne sedazioa dela, baldin eta sintoma berariazko tratamenduaren eragina baldin bada.

2. Pertsonen eskubidea dute minean eragina duten eta sufrimendua areagotzen duten beste faktore batzuk arintzeko neurri egokiak jasotzeko.

15. artikulua. Sedazio aringarria jasotzeko eskubidea.

1. Bizitzaren amaierako prozesuan, pertsonen eskubidea dute sedazio aringarria jasotzeko beren egoeraren arabera graduatzen.

2. Hilzorian dauden pertsonen eskubidea dute sedazio aringarria jasotzeko beren egoeraren arabera graduatzen.

16. artikulua. Intimitate pertsonal eta familiarako eta konfidentzialtasunerako eskubidea.

Heriotzaren prozesuaren aurrean, gaixoen eskubidea dute beren intimitate pertsonala zain dakiene eta osasun laguntzarekin loturiko datu guztiak babestuta edukitzeko.

III. TITULUA

Gaixoei bizitzaren amaierako prozesuan laguntza ematen dieten osasun profesionalen betebeharrak

17. artikulua. Informazio klinikoaren inguruko betebeharrak.

1. Sendagile arduradunari dagokio bermatzea beteko dela gaixoak, 6. artikuluan arabera, informaziorako duen eskubidea, eta berari dagokio, halaber, gaixoarekiko komunikazio egokia ziurtatzea. Gaixoari laguntzen dioten edo teknika nahiz prozedura zehatz bat aplikatzen dioten sorospen-profesionalek ere erantzukizuna hartu behar dute informazio-prozesuan.

2. Horiek guztiak historia klinikoan jasota utzi beharko dute informazio hori gaixoari eman egin zitzaiola.

18. artikulua. Erabaki klinikoak hartzearen inguruko betebeharrak.

1. Sendagile arduradunak, pertsona batentzako bizitzaren amaierako prozesuan osasun arloko esku-hartze bat proposatu aurretik, segurtatu beharko du esku-hartze hori klinikoki egokia dela, eta horri buruzko bere ebazpen kliniko egin beharko du, honakoetan oinarrituta: eskueran dagoen ebidentzia zientifikoa, daukan esperientzia eta ukituta dagoen pertsonaren egoera klinikoan, larritasunean eta pronostikoan. Ebazpen profesional horren ondorioa baldin bada osasun arloko esku-hartze bat behar dela, interesdunaren baimen libre eta borondatezkoa eskatuko da; izan ere, kasuko pertsonak aukera izanen du proposatutako esku-hartzea onartzeko, eskaintzen zaizkion aukera klinikoaren artean libreki hautatzeko edo esku-hartze horri ezezkoa emateko, profesionalaren eta gaixoaren arteko komunikazio egokiko pro-

zesu batean, hain zuzen ere lege honetan eta azaroaren 14ko 41/2002 Legean ezarritako moduan.

2. Laguntzan inplikaturik dauden osasun arloko profesional guztiak pertsonen balioak, sinesmenak eta lehentasunak errespetatu beharko dituzte erabaki klinikoak hartzerakoan, lege honetan, azaroaren 14ko 41/2002 Legean, 11/2002 Foru Legean eta haiek garatzeko arauetan ezarritako moduan. Nolanahi ere, ez dituzte inposatuko beren sinesmen eta konbikzio pertsonal, erlijioso edo filosofikoetan oinarrituriko jarduerari irizpideak.

19. artikulua. Aurretiazko Borondateen adierazpena dela-eta bete beharrekoak.

1. Osasun arloko profesional guztiak, harreman klinikoaren uneren batean, informazioa eman beharko dute aurretiazko borondateen adierazpena egiteko eskubideari buruz.

2. Gaixoei bizitzaren amaierako prozesuan laguntza ematen dieten osasun arloko profesionalak nahitaez galdetu behar diete ea aurretiazko borondateen adierazpena egina duten, eta, baiezkoan, hura kontsultatuko dute.

3. Artatutako pertsona izatezko ezgaitasun egoeran baldin badago, profesionalak nahitaez zuzenean kontsultatuko du aurretiazko borondateen adierazpena.

4. Osasun arloko profesionalak aurretiazko borondateen adierazpenean jasotako balio eta jarraibideak errespetatu beharko dituzte, foru lege honetan eta maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legean eta haiek garatzeko arauetan ezarritako moduan.

20. artikulua. Izatezko ezgaitasun-egoeran egon daitezkeen pertsonen betebeharrak.

1. Sendagile arduraduna izan beharko da baloratutako duena ea artatutako pertsona izatezko ezgaitasun egoeran dagoen, eta egoera horrek bere kabuz erabakiak hartzea eragozten ote dion. Balorazio hori behar den bezala jaso beharko da historia klinikoan. Izatezko ezgaitasun egoera bat ezartzeko, klinikoki komenigarritzat jotzen diren faktoreak ebaluatuko dira; honakoak, besteak beste:

a) Ematen zaion informazioa ulertzeko zailtasunik ote duen.

b) Erabakiak hartzeko prozesuan informazio hori modu okerrean barneratzen ote duen.

c) Erabakiak hartzeko prozesuan informazioa modu logikoan erabiltzen ote duen.

d) Egon litezkeen aukeren balizko ondorioak atzematerakoan huts egiten ote duen.

e) Amaieran erabaki bat hartzea edo hura komunikatzea lortzen ote duen.

2. Irizpide horiek baloratzeko, gaixoei arreta ematen zuzenean inplikaturiko beste profesional batzuen iritzia eskatu ahalko da. Halaber, ahaideei eta maite diren pertsoneri kontsultatu ahalko zaie, ahal den informaziorik onena lortzeko.

3. Behin izatezko ezgaitasun egoera dagoela ezarrita, sendagile arduradunak historia klinikoa jaso beharko ditu pertsona ezgaituaren ordeztu behar duen pertsonaren datuak, betiere foru lege honetako 10. artikuluan zehaztutakoari jarraituz.

21. artikulua. Ahalegin terapeutikoa mugatzea-ekin lotutako betebeharrak.

1. Gaixo bakoitzaren ardua duen sendagileak, praktika kliniko egokiaz baliatuta, biziari eusteko neurriak mugatu beharko ditu setatze terapeutikoa saihesteko beharrezkotzat jotzen duenean. Justifikazio hori gaixoaren historia klinikoa jasoko da.

2. Mugatze hori justifikatzeko, gutxienez ere gaixoari osasun arreta ematen parte hartzen ari diren osasun arloko beste bi profesional erabaki berekoak izatea behar da. Profesional horien identitatea eta haien iritzia historia klinikoa jasoko da.

3. Aurretiazko borondateen adierazpenik ez baldin badago edo gaixoaren eskubideak baliatzen dituen edo gaixoaren ahaideak ados ez baldin badaude ahalegin terapeutikoa mugatzearekin, sendagile arduradunak informazioa eskatu ahalko dio osasun zentroaren edo erakundearen arabera dagokion Osasun Laguntzako Etika Batzordeari. Horretarako, beharrezkotzat jotzen den informazio eta dokumentazio guztia igorriko dio batzorde horri. Batzordeak egindako txostena ez da loteslea izanen. Azkenik, sendagile arduraduna izanen da kasuari buruzko amaierako erabakia hartzen duena. Erabaki hori gaixoaren osasun laguntzan inplikaturiko osasun arloko profesional guztiak errespetatu beharko dute. Prozesu hori guztia modu egokian agerraraziko da historia klinikoa, eta bermatuko da maite direnei informazio argia emanen zaiela ahalegin terapeutikoa mugatzeko egokitasunari buruz, gaixoaren onerako.

4. Gaixoa artatzen duten osasun arloko profesional guztiek haren zainketa eta erosotasun egokiak bermatzeko behar diren osasun esku-hartzeko guztiak eskaini beharko dizkiote, baita biziari eusteko neurriak mugatzen diren kasuetan ere.

IV. TITULUA

Zentro eta erakunde sozio-sanitarioek emanen dituzten bermeak

22. artikulua. Artatutako pertsonen eskubideak bermatzea.

1. Administrazio sozio-sanitarioek eta 3. artikuluan jasotako erakundeek bermatu beharko dute foru lege honetako I. tituluan ezarritako eskubideak betetzen direla.

2. Pertsoneri zuzeneko arreta emateko ardua duen erakunde sozio-sanitarioak behar diren bitartekoak jarri beharko ditu pertsona horien eskubideak ez daitezen inoiz ere murrizturik egon, ezta profesionalak ezezkoa ematen duenean edo falta denean edo beste edozein arrazoi dagoenean ere.

23. artikulua. Gaixoei laguntzea.

1. Osasun arloko zentro eta erakundeek uneoro bideratuko dute eta bermatuko dute ahaideen laguntza bizitzaren amaierako prozesuan, eta laguntza hori koordinatuko dute gaixoari kalitatezko laguntza eskaintzeko behar diren laguntza-neurriekin, bereziki bizitzaren amaierako fasean.

2. Artatutako pertsonen, haien ordezkariak edo haien ahaide eta hurbilekoen eskatuta, osasun zentro eta erakundeek, haien konbikzio eta sinesmenen arabera laguntza espirituala eman dezaketen sarbidea erraztuko dute, eta begiratuko dute pertsona horiek, nolana ere, ez dituztela oztopatzeko osasun taldearen jarduketak.

24. artikulua. Gaixoa artatzeko laguntza.

Zentro eta erakunde sozio-sanitarioek bermatu egiten diote bizitzaren amaierako prozesuan dagoen pertsonari profesionalen laguntza egokia, hari informazioa emateko, nahi baldin badu, erabakiak hartzeari buruz eta aurretiazko borondateari buruz, eta egoeraren arabera zainketak emanen dizkiote, bereziki sintomen tratamenduari dagokionez eta zainketa aringarri integralei dagokienez, bai ospitaleratze kasuetan, bai etxean laguntza emateko kasuetan.

25. artikulua. Familiari eta zaintzaileei laguntza ematea.

1. Zentro eta erakunde sozio-sanitarioek bermatuko dute bai gaixoaren etxean, bai zentro sozio-sanitarioetan, bizitzaren amaierako prozesuan dagoen gaixoaren ahaideei eta zaintzaileei laguntza emozional, ekonomiko eta zerbitzuetakoa ematea, haren laguntza eta zainketak errazteko, eta konfiantzazko giroa erraztuko du, emozioak intimitate giroan adierazi ahal izan dezan eta familiak amore eman dezan ekiditeko.

2. Zentro eta erakunde sozio-sanitarioek laguntza integrala bermatuko du familiaren eta zaintzailleen doluan, eta neurriak sustatuko dituzte lagun maitearen heriotza onartzeko eta dolu zailak ekiditeko.

26. artikulua. Aholku espezializatua zainketa aringarrirei eta aurretiazko borondateei buruz.

1. Bizitzaren amaierako prozesuan dagoen pertsonari bere osasun egoerari buruzko eta bere prozesuan zehar jasoko dituen zainketa aringarrirei buruzko informazioa bermatuko zaio, betiere bere premien eta lehentasunen arabera.

2. Herritarrari bermatuko zaio, eskatzen duen laguntza mailan, garrantzizko informazio klinikoa izatea, nahi baldin badu bere iritziak eta jarraibideak adierazi ahal ditzan aurretiazko borondateen bitartez.

27. artikulua. Bizitzaren amaierako prozesuan dauden pertsonen banakako gelan egotea.

1. Zentro eta erakunde sozio-sanitarioek bizitzaren amaierako prozesuan egon eta ospitaleratze araubidean artatuak izan behar duten pertsonen bermatuko diete banakako gela bat edukiko dutela beren egonaldian, osasun egoerak eskatzen dituen erosotasuna eta intimitatea bermatzeke.

2. Halaber, pertsona horiekin batera ahaide batek edo hurbileko batek egon beharko dute etengabe. Gelek altzari egokiak izanen dituzte, laguntza ematen dagoen pertsonak gauez atsedena hartu ahal dezan, eta garbitasuna eta dietak ere bermatuko ditu, behar diren kasuetan.

28. artikulua. Osasun laguntzaren etika batzordeak

1. Osasun zentro edo erakunde guztiek sarbidea edo, kasua bada, lotura izanen dute osasun laguntzaren etika batzorde batekin. Batzorde horrek aholkua emateko eginkizunak izanen ditu gatazka etikoak planteatzen diren erabaki kliniko-en kasuan.

2. Komiteek aztertu, aholku eman eta erraztu ahal dute erabaki klinikoa hartzeko prozesua, aukera edo konponbide etikoak proposatuz bizitzaren amaierako prozesuan profesionalen, herritarren eta erakundearen artean sor daitezkeen gatazketan. Inolaz ere ez dituzte ordeztuko osasun arloko langileek, erakundeek edo herritarrek berek daukaten erantzukizuna.

3. Osasun laguntzaren etika batzordeetako kideek nahitaez isilekotasuna gorde beharko dute deliberazioen edukia inguruan, eta batzordeko kide gisa osasun arloko langileei, gaixoei edo

haien ahaide eta hurbilekoei buruz ezagutu dituzten datuen konfidentziasuna babestu beharko dute.

4. Batzordeen osaketa, funtzionamendu-tresnak eta kreditatze prozesuak abuztuaren 24ko 435/2001 Foru Aginduan eta haren ondorengo arauetan ezarritakoa izanen da.

V. TITULUA

Arau-hauste eta zehapenak

29. artikulua. Xedapen orokorrak.

Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Legean eta Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legean ezarritakoa kendu gabe, foru lege honetan eta erregelamenduak egiteko ahalmenez baliatuz haiek garatzeko egiten diren xedapenetan ezarritako arau-hausteengatik zehapen administratiboak ezarriko dira, behar den espediente zabalduta. Hori, halere, ez da eragozpena izanen arlo zibilean, zigor arloan nahiz beste edozein arlotan eska daitezkeen erantzukizunetarako.

30. artikulua. Arau-hauste arinak

Arau-hauste arin gisa tipifikatuko da edozein betebeharrak ez betetzea edo lege honetan aurreikusitako edozein debeku, arau-hauste larritzat edo oso larritzat hartuta ez badago.

31. artikulua. Arau-hauste larriak.

Ondokoak joko dira arau-hauste larritzat:

a) Datu klinikoak edo aurretiazko borondateei buruzkoak betetzeko arauak ez betetzea.

b) Ahaideen laguntza eragozte, salbu eta hori justifikatzen duten inguruabar klinikoak daudenean.

32. artikulua. Arau-hauste oso larriak.

Ondokoak joko dira arau-hauste oso larritzat:

a) Herritarrei oztopoak edo eragozpenak jartzeko lege honetako II. tituluaren adierazitako eskubideetatik edozeinez baliatzeko.

b) Foru lege honetako III. tituluaren ezarritako betebeharrak ez betetzea dakarren jokabidea.

33. artikulua. Zehapenak.

1. Foru lege honetan ezarritako arau-hausteenatik Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorreko 36. artikuluan eta Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru legeko VII. kapituluaren ezarritako zehapen administratiboak ezarriko dira.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritakoa gorabehera, baldin eta arau-hausteak Nafarroako Administrazio

publikoen zerbitzuko langileek eginak badira, abuztuaren 30eko 251/1993 Foru Dekretuko 67. artikuluan aurreikusitakoaren arabera zehapenak ezarriko dira. Eta arau-hausteak Langileen Estatutuaren pekoak diren Nafarroako Osasun Sistema Publikoko langileek eginak badira, zehapenak jarriko dira Osasun Zerbitzuetako Estatutu-peko Langileen Esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legeko XII. kapituluaren dizi-plina araubideari buruzkoan ezarritakoaren arabera, estatutu horretako 72.5 artikulua horretarako gaikuntza ezartzen baitu.

3. Arau-hauste oso larrien kasuetan egokitu litekeen zehapen ekonomikoa ezertan kendu gabe, Nafarroako Gobernuarekin adostu ahalko da osasun zentro eta establezimenduei jarduerarako emandako baimena ezeztatzea.

34. artikulua. Eskumena.

Zehapen ahalmenaz baliatzea Osasun Departamentuko organoei egokitu zaie, erregelamendu bidez ezartzen den moduan; hori, halere, ez da eragozpena izanen Nafarroako Gobernuari aurreko artikuluko 3. idatz-zatian emandako eskumenerako.

Lehenengo xedapen gehigarria. Azterlana.

Osasun Departamentuak, urtebeteko epean, azterlan bat eginen du foru lege honetan ezarritakoaren betetze-mailari buruz eta, bereziki, Nafarroako herritarrek hura dela eta erakusten duten gogobetetze mailari buruz. Azterlana bi urtez behin gaurkotuko da, lege honen aplikazioa eta eraginak erregulartasunez ebaluatu ahal izateko.

Bigarren xedapen gehigarria. Legea zabal-tzea.

Osasun Departamentuak, lege honek indarra hartu eta gehienez ere bi hileko epean, behar diren tresnak ezarriko ditu foru lege honi ahal den zabalpen handiena emateko profesionalen artean eta, oro har, herritarren artean.

Hirugarren xedapen gehigarria. Zainketa aringarriak.

Osasun Departamentuak eta haren erakunde autonomo Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, zainketa aringarriak direla-eta foru lege honetan ezarritakoa hobeki betetze aldera, behar diren neurriak sustatuko dituzte Nafarroako Osasun Sistema Publikoan zainketa aringarrien unitateen eta euskarri-ekipoen kopuru eta dotazio egokiak egon daitezten, eta ekitatea bermatuko du herritarrek haietarako sarbidea izatearen arloan, edozein dela ere herritar horien bizitokia.

Laugarren xedapen gehigarria. Aurretiazko borondateen adierazpenak

Osasun Departamentuak osasunaren arloko profesionalen artean eta herritarren artean modu aktiboan sustatuko du aurretiazko borondateen adierazpenak egin daitezten. Horretarako, prestakuntza ikastaroak, informazio kanpainak, protokoloak eta egokitzat jotzen diren gainerako bitartekoak erabiliko dira.

Bosgarren xedapen gehigarria. Aurretiazko Borondateen Erregistroa historia kliniko informatizatuan sartzeari.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak bidea emanen du bi hileko epean Nafarroan dauden aurretiazko borondateen adierazpen guztiak zuzenean eta modu arinean kontsultatu ahal izan daitezten historia kliniko informatizatuen bitartez, bai osasun etxeetan, bai ospitaleetan ere, betiere datu horiei buruz behar den konfidentzialtasuna gordez.

Seigarren xedapen gehigarria. Osasun laguntzaren etika batzordea

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, hiru hilabeteko epean, oinarrizko osasun laguntzaren arloko osasun laguntzaren etika batzordea sor dadin sustatuko du, oinarrizko osasun laguntzaren osasun arloko profesionalen eta erabiltzaileei, eztabaida eta gatazka eragiten dituzten gai etikoetan, aholkua eta laguntza bermatzeko, betiere ezertan kendu gabe Osasun laguntzako etika batzordeen sorrera eta kreditatzea arautzen dituen abuztuaren 24ko 435/2001 Foru Aginduan ezarritakoa.

Xedapen iragankor bakarra. Aurretiazko borondateen erregistroa kontsultatzea.

Aurretiazko borondateen adierazpenaren edukia historia klinikoan sartzan ez den bitartean, foru lege honetako 9.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, bizitzaren amaierako prozesuan dauden gaixoen ardura duten osasun arloko profesionalen aurretiazko borondateen erregistroa kontsultatu beharko dute.

Azken xedapenetan lehenengoa.

Indarrean jarraitzen du Biziaren gaineko aurretiazko borondateak egiteko eta informazio eta agiri klinikoak eskuratzeko eskubideei buruzko maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legeak, Aurretiazko Borondateen Erregistroa arautzen duen ekainaren 16ko 140/2003 Foru Dekretuak eta Osasun laguntzako etika batzordeen sorrera eta kreditatzea arautzen dituen abuztuaren 24ko 435/2001 Foru Agindua, ezertan ere kendu gabe Bizitzaren Amaieran Per-

tsonen Eskubideak eta Duintasuna Ziurtatzeari buruzko Legean bertan ezarritakoa.

Azken xedapenetan bigarrena. Erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau aplikatu eta garatzeak eskatzen ditu-

en erregelamendu mailako xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetan hirugarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabetera hartuko du indarra.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Transferentzia Batzordea premiatzen da zenbait eskumen eskualdatzeko eta bereganatzeko negoziazioak susta ditzan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Transferentzia Batzordea premiatzen baita zenbait eskumen eskualdatzeko eta bereganatzeko negoziazioak susta ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean lehentasunez eztabaidatu eta gai bakoitza era bereizian bozkatzeko:

Zioen azalpena

1. Trafikoaren arloko eskumenak jada eskualdatu dira zenbait autonomia erkidegotara. Nafarroaren kasuan, gainera, argudiatu daiteke eskumen horiek historikoki Nafarroari zegoziola, eta, horrenbestez, ez dago inolako arrazoirik eskumen horien transferentzia atzeratzeko. Nafarroak baditu zeregin hori betetzeko beharrezkoak diren baliabide tekniko eta pertsonalak, bai eta esperientzia

eta funtzionamendu-egiturak ere, eta ez dago inolako arrazoirik transferentzia hori gehiago atzerako.

2. Foru Hobetzean aurreikusita dago, besteak beste, espetze arloko politikaren eskumena Nafarroako Foru Komunitateari dagokiola. Nafarroako Parlamentuan izan diren eztabaida ugarietan, jarrera desberdinak hartu izan dira; horien artean, gogora ekarri behar da askotan errepikatutako argudio bat; alegia, espetze zaharraren ordez erakitzen ari den zentro berria amaitu ondoren hartu beharko lukeela bere gain Nafarroak espetxeen arloko eskumena. Espetze berria amaitzean dagoen honetan, iritsi da Nafarroak eskumen hori bere gain hartzeko garaia. Izan ere, horrek konponbide zaileko arazoa badakar ere, betebeharrak soziala ere bada, espetxe presoekiko, haien ahaide eta lagunekiko eta Konstituzioak aldarrikatzen duen gizarteratzeko helburuarekiko.

3. Nafarroak duela urte batzuk Enpleguko Institutu Nazionalaren politika aktiboen transferentzia jaso eta gero, beharrezkoa da politika pasiboek buruzko eskumenak ere bere gain hartzea. Lehenbizikoz, bi politika mota horiek duten harreman estuagatik –institutu publiko berari esleitu izana horren erakusgarri da–; bigarrenik, eginkizun horiek egitura komunetan egin izan direlako, eta presazio bateratu horren sinergiek, zalantzarik gabe, krisialdian beharrezkoa den eraginkortasun handiagoa dakarte.

4. Gizarte Segurantzaren kudeaketa ekonomikoaren arloko eskumenei dagokienez, bai eta politika sozialaren arlokoei ere, komenigarria da Gobernuak premiatzea Gizarte Segurantzaren kudeaketari buruzko eskumenak bere gain har ditzan Nafarroako Estatutu eta Foru Hobetzean ezarritako parametroei jarraikiz, lege orokorren arabera eta, horrenbestez, elkartasunari kalterik egin gabe; izan ere, elkar-

tasuna ezin daiteke egon kutxa bakarraren materialtasunaren ez kudeaketaren menpe, kontabilitatezko erreferentzia huts gisa, hala izanda ere. Azken finean, elkertasuna pertsona askeen ondarea da.

5. Ikerketa ere, modu generikoan, Nafarroaren eskumena da, Nafarroako Estatutu edo Foru Hobetzearen xedapenen arabera. Ikerketa zientifiko, bai eta ikerketa tekniko eta aplikatua ere, erronka dira bai Nafarroako Unibertsitate Publikoaren garapenerako, bai Nafarroako ekoizpen-sektoreko I+G+Brako, eta, halaber, gaur egun aztertzen ari diren unibertsitate-parke teknologikoaren proiektuei zentzua ematen diete. Gainera, kontuan hartu behar da zenbait autonomia erkidego eskumen horren transferentzia negoziatzen ari direla.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Transferentzia Batzordea premiatzen du ondoko eskumenak eskualdatzeko eta bereganatzeko negoziazioak susta ditzan.

- 1.- Trafikoaren arloko eskumenak.
- 2.- Espetxeen arloko eskumenak eta espetxe-politika.
- 3.- Enpleguko Institutu Nazionalaren politika pasiboak.
- 4.- Gizarte Segurantzaren kudeaketa ekonomikoa.
- 5.- Ikerketa zientifiko, tekniko eta aplikatua.

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramirez Erro

Gasturako erreserbak ukitutako kontusailei buruzko erabakia.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2010eko ekainaren 28an egindako bilkuran, besteak beste, ondoko erabakia hartu zuen:

Ikusirik Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak gasturako erreserbak ukitutako kontusailei buruz aurkezturiko erabaki proposamena, ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala igor dezan departa-

mentuek, gastu publikoaren kontrol neurriak betetze aldera, gasturako aldi baterako erreserbetarako proposatu dituzten kontusail zehatzei buruzko informazioa.

2. Erabaki hau Nafarroako Gobernuari jakinaraztea.

Iruñean, 2010eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gobernuaren 2010erako Gastu eta Erreserba Planak Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren zer kontusail ukituko dituen jakiteko.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren 2010erako Gastu eta Erreserba Planak Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren zer kontusail ukituko dituen jakiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernu Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariak ahoz erantzun dezan Legebiltzarraren Osoko Bilkuran.

- Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko zein kontusailetan izanen du eragina Nafarroako Gobernuak 2010erako prestatutako gastu eta erreserba planak?

Iruñean, 2010eko ekainaren 21ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Nafarroako Museoa handitze aldera Iruñeko Udalarekin sinatu beharreko protokoloari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Museoa handitze aldera Iruñeko Udalarekin sinatu beharreko protokoloari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Museoa handitze aldera Iruñeko Udalarekin sinatu beharreko protokoloari buruzkoa, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dadin.

Zioen azalpena

Ekainaren 21ean eginiko bilkuran, Nafarroako Gobernuak onetsi zuen Iruñeko Udalarekin sinatu behar duen protokolo orokorraren testua, zeinaren bidez udalak Descalzos kaleko 72.ean dagoen udal higiezina lagako baitio, bertan Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe berria eraikitze aldera. Gaur egun, eraikin horretan daude Iruñeko Udalaren Kultura Saileko bulegoak, baina hiriko beste toki batera eraman behar dituzte.

Toki horretan, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Museoaren egoitza handitu nahi du, eta horrek ahalbidetuko du, Gobernuaren ustez, museoaren

kultur xedea hobetzea, kultur jarduerak eta sormenezko aisialdikoak antolatzea eta bisitari kopurua handitzea, eta, gainera, kulturaren sektorearekin harremana duten zerbitzuen enpresak ekonomikoki aktibatzea.

Jarduera hori ahalbidetzeko, Nafarroako Gobernuak bere gain hartuko ditu Descalzos kaleko udal eraikinean Haur Hezkuntzako lehen zikloa hartuko duen ikastetxean egin beharreko obren gastuak, baita museo handitzeko obren gastuak ere, behin haur eskola eraiki ondoren.

Aurrekoa ikusirik, hauxe jakin nahi dut:

- Zein da egokitzapen-lan horien aurreikuspena, denborari dagokionez?
- Zer kostu izanen du aurreikusitako inbertsio bikoitzak?
- Zer oinarrizko erabilera izanen du museoaren gunen berriak?

Iruñean, 2010eko ekainaren 22an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Arte Garaikidea Sustatzeko Plana Nafarroako Museoa handitzeko protokoloari dagokionez garatzeari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Arte Garaikidea Sustatzeko Plana Nafarroako Museoa handitzeko protokoloari dagokionez garatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzeko.

Iruñean, 2010eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Román Felones Morrás foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 191. artikuluan xedatuaren babesean, Batzorderako honako ahozko galdera hau egiten du, Arte Garaikidea Sustatzeko Planaren garapenari buruzkoa.

Zioen azalpena

2009ko abenduaren 15ean, zenbait atzerapen izan eta gero, Nafarroan Arte Garaikidea Sustatu eta Garatzeko Plan Orokorra aurkeztu zen Parlamentuan.

Nafarroako Gobernuak bere egiten duen plan horretan jasotako proposamenen artean, arte

garaikideko museo baten sorrera dago. Horretarako bi aukera proposatzen dira:

– Nafarroako Museoa handitzea.

– Museo berri bat egitea, Iruñeko erdialdean, ahal dela eraikin berri batean, edota erraz zaharberritu daitekeen higiezin batean.

Ikusirik Nafarroako Gobernuak 2010eko ekainaren 21ean hartutako erabakia, Nafarroako Museoa handitzea ahalbidetuko duen protokoloari buruzkoa, hau jakin nahiko nuke:

Galderaren testua

• Zer lotura du jarduketa horrek Nafarroan Arte Garaikidea Sustatu eta Garatzeko Plan Orokorrean aurreikusitakoarekin? Horrek esan nahi du Nafarroako Gobernuak planean aipatutako bideen artean lehena aukeratu duela? Gobernuaren aukeren artean al dago dokumentazio zentroa handitzea?

Iruñean, 2010eko ekainaren 24an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Nafarroako Zirkuituaren inaugurazioak eragindako gastuei eta horiek ordaintzeko baliatuko den kontusailari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Zirkuituaren inaugurazioak eragindako gastuei eta horiek ordaintzeko baliatuko den kontusailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

2010eko ekainaren 19an, Nafarroako Zirkuitua inauguratu zen. Zein izan dira ekitaldi horrek sortu dituen gastuak? Aurrekontuko zein kontusaili egoztziko zaizkio?

Iruñean, 2010eko ekainaren 21ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Sasi Ardi eta Pottoka arrazak Nafarroako arraza autoktonoen barruan sartzeari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Sasi Ardi eta Pottoka arrazak Nafarroako arraza autoktonoen barruan sartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

- Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ba al du asmorik Sasi Ardi eta Pottoka arrazak Nafarroako arraza autoktonoen barruan sartzeko?

- Hala bada, noiz?

Iruñean, 2010eko ekainaren 21ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Erronkariko herrigunean Ezka ibaian ur bizen ubidea egiteko proiektuari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Erronkariko herrigunean Ezka ibaian ur bizen ubidea egiteko proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

- Zein egoeratan dago Erronkari ibarreko Batzar Nagusiak Ezka ibaiko ur-amiletarako sustutako ubide-proiektua?

Iruñean, 2010eko ekainaren 22an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Nafarroan ekintzaileen proiektuei babesa emateko politikari buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan ekintzaileen proiektuei babesa emateko politikari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean,

honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

Nafarroan ekintzaileen proiektuei babesa emateko politikari buruz, parlamentari honek hau jakin nahiko luke:

a) Ekintzaileei laguntzeko zer egiturek, publikoak edo parte-hartze publikoak dutenak, dihardute Nafarroan, eta langileei eta laguntzarako profesionalei dagokienez, zer egitura du horietako bakoitzak?

b) Zer egitura du horietako bakoitzak eta zein da, zuzenean edo zeharka, Nafarroako Gobernuko aurrekontuetan bakoitzari dagokion zenbatekoa?

c) Horietako egitura bakoitzak 2000. urtetik hona lagundu dituzten ekintzaileen eta enpresa-proiektuen kopurua, horietako bakoitzaren jardura-sektorea, Enpresa Planeko inbertsio-aurreikuspena eta proiektu horietako bakoitzean sortuko den enpleguaren aurreikuspena.

Iruñean, 2010eko ekainaren 24an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, Los Arcosko zirkuituko aparkalekuko zoladurari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Los Arcosko zirkuituko aparkalekuko zoladurari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Zergatik altxatu da Los Arcosko Nafarroako Zirkuituaren aparkalekuko zoladura?

2. Zein izan da konponketa horren kostua?

3. Zein egoeratan dago gaur egun zirkuituaren zoladura?

4. Zirkuituko zoladura aparkalekukoak dituen arazo berak izaten ari al da?

Iruñean, 2010eko ekainaren 23an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, garapenerako lankidetzaren arloko laguntza teknikoari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, garapenerako lankidetzaren arloko laguntza teknikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Garapenerako lankidetzaren arloko laguntza teknikoari buruzko galdera

1. Legegintzaldia hasi zenetik, garapenerako lankidetzaren arloaren jarraipena eta kontrola egiteko laguntza teknikorako zenbat kontratu bete dira eta noiz?

2. Ba al duzu asmorik laguntza tekniko hori luzatzeko?

3. Ba al duzu asmorik arlo horretako plantilla indartzeko, espedienteen jarraipena eta kontrola egiteko kanpoko laguntzaren beharrik ez izateko?

Iruñean, 2010eko ekainaren 24an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren Erabakia, 2010eko otsailaren 8koa, izaera pertsonaleko datuen fitxategiak sortzeari buruzkoa.

Fitxategiak osatzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko otsailaren 8an harturiko Erabakiaren bidez, erakunde horretan dauden datu pertsonalen fitxategi automatizatuak arautu ziren. Ebazpen hori 2010eko martxoaren 22ko 36. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2010eko apirilaren 26an, aplikatzekoa den araudiari jarraikiz, aipatu fitxategiei buruzko jakinarazpena egin zitzaion Datuak Babesteko Espainiako Agentziari, inskriba zitezen.

Datuak Babesteko Erregistro Orokorreko Zuzendariordetza Nagusiaren maiatzaren 19ko jakinarazpenaren bidez, Fitxategi Publikoen arloko buruak adierazi zigun Nafarroako Parlamentuak onetsitako fitxategiak inskribatu zituztela Datuak Babesteko Erregistro Nagusian, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren zuzendariak emandako ebazpenekin batera. Halaber, adierazi zigun beharrezkoa zela igorritako fitxategi berrien zenbait alderdi osatzea.

Horren ondorioz, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 20.2 artikulua betetze aldera, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 37.1.1 artikulua esleitutako ahalmenak erabiliz, ERABAKI DA:

1. Erregistro Orokorra izeneko fitxategiaren deskribapena osatzea. Honela geratuko da testua:

“d) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta bertan sartuko diren datu pertsonalak. Fitxategi automatizatu bat da, eta honako datuak bilduko ditu:

- Igorlea: izen-deiturak
- Hartzailea: izen-deiturak
- Sarrerako edo irteerako erregistroaren zenbakia

- Dokumentu mota
- Jatorria: helbidea
- Erregistroko data
- Dokumentuaren data
- Konfidentzialtasuna
- Ordua
- Laburpena
- Barneko banaketa
- Oharrak
- Barneko jatorria
- Ofizioak”

2. Giza baliabideak izeneko fitxategiaren deskribapena osatzea. Honela geratuko da testua:

“d) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta bertan sartuko diren datu pertsonalak. Fitxategi ez-automatizatu bat da, eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileei buruzko datuak bilduko ditu (dokumentu-euskarria).

• Identifikazio datuak (oinarritzkoa): izen-deiturak, NANA, helbidea, telefonoa, sinadura, sinadura elektronikoa eta Gizarte Segurantzako afiliazio-zenbakia.

• Ezaugarri pertsonalen gaineko datuak (oinarritzkoa): egoera zibila, familia-egoera, jaioteguna, jaioterria.

• Ikasketen eta lanbideen gaineko datuak (oinarritzkoa): titulazioak, sartu aurretiko lanbide esperientzia, prestakuntza ikastaroak, irakaskuntzaren arloko esperientzia; biltzar, mintegi eta ikastaroetara joatea eta haietan parte-hartzea. Datu ekonomiko eta finantzarioak (oinarritzkoa): nominako eta aseguruetako datu ekonomikoak.

• Arau-hausteei buruzko datuak (tartekoa): diziplinarioak.

• Sindikatuetakoa afiliazioari eta osasunari buruzko datuak: aplikatzekoa da Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko Lege Erregelamenduaren 81.5 eta 6 artikuluetan ezarritakoa; horrenbestez, ez dira aldatzen fitxategi honetarako ezarritako segurtasun neurriak.”

3. Ikus-entzunezko irudiak eta argazkiak izeneko fitxategiaren deskribapena osatzea. Honela geratuko da testua:

“d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta bertan sartuko diren datu pertsonalak. Fitxategi automatizatu bat da eta honakoak bilduko ditu: ekitaldi, bilkura edo bisitaldi bakoitzeko banakako ikus-entzunezko grabazioen edizioa, bai eta Legebiltzarreko organoek edo bertako kideek parte hartutako gertakari edo jarduera bakoitzean ateratako argazkiak ere.

• Ikus-entzunezko grabazioak, data, organoa, bilkuraren garapena, iraupena eta hizlariak (izen-deiturak) jasotzen dituztenak.

• Argazkiak: ekitaldiaren datarekin eta izenburuarekin (izen-deiturak).”

4. Artxiboaren Kudeaketa izeneko fitxategiaren deskribapena osatzea. Honela geratuko da testua:

“d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta bertan sartuko diren datu pertsonalak. Fitxategi automatizatu bat da eta honako eremuak izanen ditu:

- Saila
- Urtea
- Kopurua
- Hasierako data
- Amaierako data
- Izenburua (datu pertsonalak izan ditzake: izen-deiturak, enpleguaren xehetasunak, administrazio zehapenak)
- Sailkapen-kodea
- Jatorria
- Instalazio-unitateak
- Bolumena eta euskarria

- Norainokoa eta edukia
- Arlokako aurkibidea
- Pertsonen aurkibidea (datu pertsonalak dauzka)
- Tokien aurkibidea
- Oharrak (datu pertsonalak izan ditzake).”

5. Liburutegiko Hornitzaileen Kudeaketa izeneko fitxategiaren deskribapena osatzea. Honela geratuko da testua:

“d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta bertan sartuko diren datu pertsonalak. Fitxategi automatizatu bat da eta honako eremuak izanen ditu:

- Kopurua
- Hornitzailea (datu pertsonalak izan ditzake: izen-deiturak)
- Aktiboa edo inaktiboa
- Helbidea (datu pertsonal bat izan daiteke)
- Telefonoa
- Faxe
- Helbide elektronikoa
- Web helbidea
- Gutun zenbakia
- Deskontua
- Erreklamatzeko egunak
- Oharrak”

6. Datuak Babesteko Espainiako Agentziari jakinaraztea, aipatu fitxategien inskripzioa aldatze aldera, Datu pertsonalak babesteko Lege Organikoa garatzen duen Erregelamenduan ezarritako moduari eta prozedurari jarraikiz.

7. Erabaki hau igortzea Nafarroako Aldizkari Ofizialera eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialera, argitara dadin.

Iruñean, 2010eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

